



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2015IPLE0007

Eguna: 2015/05/19

Ordua: 19:01-19:15

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	EHBILDU
- Maite Olatziregi Esparza	EHBILDU
- Agin Laburu Rezola	EHBILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz	EHBILDU
- Berta Arozena Bergara	EHBILDU
- Raul Redín Hernández	EHBILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat

Bertaratu ez direnak

- Isabel Otero Glorie	EHBILDU
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
Kontxa Etxeberria Miranda. Alaba kuttun izendatzea	1	Kontxa Etxeberria Miranda. Nombramiento de hija predilecta

Esan-eginak eta erabakiak

- | | |
|--|--|
| 1. <u>Kontxa Etxeberria Miranda. Alaba kuttun izendatzea</u> | 1. <u>Kontxa Etxeberria Miranda. Nombramiento de hija predilecta</u> |
|--|--|

Alkateak Kontxa Etxeberria anderea alaba El alcalde explica que el proceso para



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

kuttuna izendatzeko prozesua, 2014ko irailean hasi zela azaltzen du, EAJ-PNV alderdiak aurkeztutako mozioaren ondoren. Eta prozesua, alaba kuttun izendatzeko nahiko argudio zeuden jakiteko, Lourdes Odriozolari txostena eskatuz hasi zela gehitzen du.

Jarraian, txosten horren laburpen bat egiten du alkateak, azpinmarratuz bere dirua herriko haurrei gaztaro hobeagoa emateko erabili zuela, eta gaur egun oraindik bizirik dagoen fundazio bat eratu zuela. Eta horiek nahiko arrazoiak direla izendapena egiteko.

Bestetik adierazten du, bileran honetan izendapena onartzea proposatzen dela, gaur jaio zenaren 160 urteurrena baita, eta aurrerago eskegiko dela aretoan argazkia eta diploma banatu. Baina argazkirik ez dagoela, eta Erromako artxibo batean bateren bat dagoen baitan daudela, bestela ezagutu zutenen ezaugarri fisikoekin osatu beharko dela.

Bukatzeko, alkateak bilera aprobetxatu nahi du, udalak fundazioarekin beti harreman ona ez duenez eduki, barkamen instituzionala eskatzeko.

Zorione zinegotziak hartzen du hitza eta adierazi, 2014ko uztailaren 1ean aurkeztutako mozioa arrazoi izan zela, herriari egindako ekarpena ez diolako ez herriak ez udalak aitortu.

Gehitzen du, EHBildu ez zuela mozioa kontutan hartu eta hau bideratu bada, aurreko udal idazkariarengatik izan dela eta eskerrak eman nahi dizkiola gehitzen du.

Bukatzeko, herritarrek Kontxa Etxeberria eta berak eratutako fundazioa ezagutu arazteko konpromisoa hartzea eskatzen dio udalari.

nombra a Kontxa Etxeberria hija predilecta se inició en diciembre de 2014, tras una moción presentada por EAJ-PNV. Solicitándose un informe a Lourdes Odriozola, para comprobar si había suficientes argumentos para nombrarla hija predilecta.

A continuación el alcalde hace un resumen de dicho informe, destacando que utilizó su dinero para que los niños tuvieran una niñez mejor, creando una fundación, que hoy en día todavía existe. Y que eso es suficiente argumento para el nombramiento.

Por otro lado comenta que en esta sesión se propone aprobar el nombramiento, al ser hoy el 160 aniversario de su nacimiento, y que más adelante se colgará la fotografía y se entregará el diploma. Pero que no hay ninguna fotografía y que están a espensas de conseguir una de un archivo de Roma, y que si no habrá que hacer una con las características físicas de quienes la conocieron.

Para terminar, el alcalde quiere aprovechar la ocasión para pedir perdón institucional a la fundación, porque la relación del Ayuntamiento con ellos no siempre ha sido buena.

Toma la palabra la concejal Zorione y señala que la razón de presentar la moción el 1 de julio de 2014, fue porque ni el pueblo ni el Ayuntamiento le había agradecido su aportación.

Añade que EHBildu no tuvo la moción en cuenta, y que si la misma se ha tramitado es gracias al anterior secretario municipal, al que quiere dar las gracias.

Para terminar, pide al Ayuntamiento que se comprometa a que los vecinos conozcan a Kontxa Etxeberria y la fundación que ella creó.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Alkateak hartzen du hitza, azaltzeko bere egunean mozioa onartu ez izanaren arrazoia, izendapen hauetarako araudi bat dagoelako eta administrazio prozedura bat jarraitu behar delako izan zela.

Toma la palabra el alcalde para explicar que la razón de no haber aprobado la moción es porque existe un reglamento para este tipo de nombramientos y hay que seguir un procedimiento específico.

Bixente zinegotziak hartzen du hitza eta adierazi, lan handia egindako emakumea izan dela, bere dirua behartsuei laguntzeko erabili zuena, gaur egun kultur etxean dagoen eraikuntzan eskola bat jarriaz. Eta gehitzen du, herrian ezezaguna dela, eta ondo legokeela egindako lana herrian zabaltzea.

Toma la palabra el concejal Bixente y señala que ha sido una mujer que hizo una gran labor, que utilizó su dinero para ayudar a los pobres y abrió una escuela donde hoy día está la casa de cultura. Y añade que es una desconocida en el pueblo y que estaría bien difundir su labor.

Zorione zinegotziak, fundazioko kideak gonbidatu diren galderaren aurrean, Alkateak fundaziokoei aparte, familiari ere gonbidatu zaiola adierazten du.

La concejal Zorione pregunta si se ha invitado a los miembros de la fundación, a lo que el Alcalde le contesta que se ha invitado tanto a la fundación como a su familia.

Bozkatu ondoren, aho batez onartzen da, Kontxa Etxeberria Miranda anderea Astigarragako alaba kuttun izendatzea.

Sometida a votación, se aprueba por unanimidad nombrar a Kontxa Etxeberria Miranda hija predilecta de Astigarraga.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2015-05-19

Kontxi Urdanpilleta Santamaria
Ordezko Idazkaria